
3 Gipuzkoako Lurralde Historikoko Xedapen Orokorrak

GFA-OGASUNA ETA FINANTZA

886/2012 Foru Agindua, urriaren 3koa, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren inguruko araudia interpretatu eta argitzen duena.

OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

886/2012 FORU AGINDUA, urriaren 3koa, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren inguruko araudia interpretatu eta argitzen duena.

2012ko uztailaren 13ko 20/2012 Errege Dekretu Legeak, aurrekontu egonkortasuna bermatu eta lehiakortasuna sustatzeko neurriei buruzkoak, aldaketak sartzen ditu, besteak beste, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ezarpen tasetan, eta 2012ko irailaren 1etik aurrera izango dira aplikagarriak.

Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Legearen xedapenetara egokitzen duen abenduaren 29ko 102/1992 Foru Dekretuak jasotako BEZaren erregulazioa egokitze aldera, 2012ko abuztuaren 28ko 4/2012 Foru Dekretu Araua onartu eta joan den abuztuaren 31ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu zen.

Joan den irailaren 19ko osoko bilkuran, Gipuzkoako Batzar Nagusiek ez zuten balioztatu foru dekretu arau hori, eta, beraz, indargabetuta geratu zen.

Horiek horrela, beharrezkoa da zehaztea zer araudi den Gipuzkoako lurralde historikoan aplikagarria, Batzar Nagusietako Lehendakariak abuztuaren 28ko 4/2012 Foru Dekretu Araua indargabetzeko emandako Ebazpena Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen denetik aurrera.

Horretarako, Araubide Juridikoko Zuzendaritza Nagusiaren txostenaren arabera, 2008ko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrak, 11.3 artikuluan ematen dizkidan eskumenei jarraituz, hau

Horrenbestez,

EBAZTEN DUT

Gipuzkoako lurralde historikoaren eremuan, aplikagarria da Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Legearen xedapenetara egokitzen duen abenduaren 29ko 102/1992 Foru Dekretua, gaur egun duen idazkerari jarraituz, Aurrekontu egonkortasuna bermatu eta lehiakortasuna sustatzeko neurriei buruzko uztailaren 13ko 20/2012 Errege Dekretu Legeari kontra egin edo horrekin bat ez datorren guztian.

Horrenbestez, uztailaren 13ko 20/2012 Errege Dekretu Legea aplikagarria da, abenduaren 29ko 102/1992 Foru Dekretuan jasotakoarekin bat ez datozen BEZari buruzko xedapenei dagokienez.

Foru agindu gau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN emango da argitara, eta Batzar Nagusietako Lehendakariak abuztuaren 28ko 4/2012 Foru Dekretu Araua indargabetzeko emandako Ebazpena argitaratzen denetik aurrera izango da aplikagarria.

Donostia, 2012ko urriaren 3a.—La diputada foral del departamento, Helena Franco Ibarzabal.

(8467) (9277)